



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GENERO ESTEREOTIPOAK LEHEN HEZKUNTZAN KIROLARI DAGOKIONEZ

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Lacuesta Barrenetxea, Leire.

ZUZENDARIA: Ingunza Duque, Ainara.

2023

LABURPENA

Gratu Amaierako Lan (GrAL) honek, Lehen Hezkuntzako ikasleen artean jarduera fisikoarekiko eta kirolarekiko dituzten estereotipoak buruz egindako ikerketa bat erakusten du. Gure gizartea estereotipoz beteta dagoela argi dago, eta horrek, gure bizitzako edozein esparrutan eragina du, kirolean besteak beste. Hau da, zer kirol egin erabakitzeke orduan edota nola pentsatu edo izaterako orduan eragin handia du, gazteen artean batez ere.

Horretarako, ikerketa kualitatibo bat egin da Bizkaiako Ikastolen Elkarteko zentro bateko Lehen Hezkuntzako ikasleen artean, 1. mailatik 6. mailako ikasleen artean, hain zuzen. Horrela, 22 galderaz osatutako galdetegi bat pasatu da ikasleen artean, kirolari buruz dituzten estereotipoak, iritziak eta pertzepzioak jaso, ezagutu eta aztertu ahal izateko. Horrela, Lehen Hezkuntzako ikasleek kirolarekiko estereotipoen pertzepzioan dituzten desberdintasunak aztertu dira generoaren arabera eta mailaren arabera.

Emaitzei erreparatuz, ikusi da poliki-poliki gure gizartea aldatzen doala, eta horrek, Lehen Hezkuntzako ikasleen artean iritzi estereotipatuak oso gutxi direla eta urteekin gutxitzen joan direla erakusten digu. Hala ere, aurrerapauso handiak eman diren arren, oraindik estereotipo eta aurreiritzi hauek barneratuta ditugula ikusi da, izan ere, estereotipo hauek mantentzen jarraitzen dituzten hainbat eta hainbat faktore daude, txikiengan asko eragiten eta baldintzatzen dituztenak, hain zuzen ere.

Hori dela eta, MullenLowe London taldeak eskola batean egindako proiektu batean oinarritu naiz nire proposamena egiteko. Dinamika desberdinak proposatu dira non hauen helburu nagusia, Lehen Hezkuntzako haurrek kirol-esparruan emakumeenganako izan ditzaketen genero-estereotipoak aztertzea izan da, ondoren, egoerari buelta bat emateko.

Hitz gakoak: Genero-estereotipoak, Lehen Hezkuntza, aurreiritziak, kirola, generoa, kirol-erreferenteak eta gizartea.

RESUMEN

Este Trabajo de Fin de Grado (TFG) muestra un estudio realizado entre el alumnado de Primaria sobre sus estereotipos relacionados con la actividad física y el deporte. Está claro que nuestra sociedad está llena de estereotipos, y eso influye en cualquier ámbito de nuestra vida, como el deporte. Así, esto influye a la hora de decidir qué deporte hacer, cómo pensar o ser, sobre todo entre los más jóvenes.

Para ello se ha realizado un estudio cualitativo entre el alumnado de Primaria de un centro de Ikastolen Elkartea de Bizkaia de 1º a 6º curso de Educación Primaria. Así, se ha pasado

un cuestionario de 22 preguntas entre el alumnado para recoger, conocer y analizar sus estereotipos, opiniones y percepciones sobre el deporte. Así, se han analizado las diferencias en la percepción de estereotipos del deporte por parte del alumnado de Primaria en función del género y del curso.

Los resultados muestran que nuestra sociedad va cambiando poco a poco, lo que hace que las opiniones estereotipadas sean muy escasas entre el alumnado de Primaria y que hayan ido disminuyendo con los años. Sin embargo, a pesar de los avances que se han dado, se observa que todavía tenemos interiorizados estos estereotipos y prejuicios, ya que existen una serie de factores que los siguen manteniendo y que influyen y condicionan mucho a los más pequeños.

Por eso, me he basado en un proyecto de MullenLowe London hecho en una escuela para hacer una propuesta. El objetivo principal de estas propuestas ha sido analizar los estereotipos de género existentes de los niños y niñas de Primaria sobre las mujeres en el ámbito deportivo, para así después darle la vuelta a la situación.

Palabras clave: Estereotipos de género, Educación Primaria, prejuicios, deporte, género, referentes deportivos y sociedad.

ABSTRACT

This Final Degree Project (TFG) shows a study carried out among Primary School students on their stereotypes related to physical activity and sport. It goes without saying that our society is full of stereotypes, and this influences any area of our lives, such as sport. Thus, this influences when it comes to deciding what sport to do, how to think or be, especially among young people.

For this purpose, a qualitative study was carried out among primary school pupils at an Ikastolen Elkartea school in Bizkaia from 1st to 6th year of primary education. A 22-question questionnaire was passed among the pupils to collect, find out about and analyse their stereotypes, opinions and perceptions of sport. Thus, the differences in the perception of stereotypes of sport by Primary School pupils according to gender and year were analysed.

The results show that our society is changing little by little, which means that stereotypical opinions are very rare among primary school pupils and have been decreasing over the years. However, despite the progress that has been made, it can be seen that we still have these stereotypes and prejudices internalised, as there are a series of factors that continue to maintain them and that influence and condition children to a great extent.

For this reason, I have based my proposal on a MullenLowe London project carried out in a school. The main objective of these proposals was to analyse the existing gender stereotypes of primary school boys and girls about women in the field of sport, in order to turn the situation around.

Keywords: Genders stereotypes, Primary Education, prejudices, sport, gender, sport references and society.

1. Sarerra	1
2. Marko teorikoa	2
2.1. Emakumea historian zehar	2
2.2. Emakumea gaur egungo gizartean	4
2.3. Emakumeak komunikabideetan	4
2.4. Testuliburuak lehen hezkuntzan	8
2.5. Estereotipoak gorputz hezkuntzan	9
2.6. Kirol-erreferenteak	11
3. Helburuak	13
4. Metodologia	14
4.1. Lagina	14
4.2. Ikerketa-lanaren instrumentuak	14
4.3. Prozedura	14
5. Emaidzak	15
5.1. Galdetegiaren lehenengo atala	15
5.2. Galdetegiaren bigarren atala	26
6. Ondorioak	30
7. Hobekuntza proposamenak	32
8. Bibliografia	33
10. Eranskinak	36
1. Eranskina. Galdetegia	36

1. Sarerra

Gaur egungo gizarteak aurre egin beharreko erronka garrantzitsuenetako eta konplexuenetako bat emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna da. Pertsona guztiek eskubide, aukera eta baliabideak eskuratzeko aukera berberak izatea merezi dutelako, generoa edozein dela ere.

Genero-desberdintasunak pertsonen potentziala mugatu dezake, eta, askotan, emakumeen, eta baztertutako beste talde batzuen, diskriminazioan eta bazterketan agertzen da, bizitzako eremu askotan.

Kirolari dagokionez, kirola egiteak abantaila fisiko, psikiko eta sozialak dakartza pertsona gehienentzat. Emakumeek jarduera horiek gizonek baino kopuru txikiagoan egiten dituzten heinean, argi eta garbi desabantailan egongo dira hiru maila horietan, eta desabantaila hori metatu egin daiteke historian zehar, zerbait natural, positibo eta sozialki onartua bihurtzeraino. Horregatik, garrantzitsua da estereotipoak eta emakumeen kirol-mundua aztertzea eta irtenbideak eta ekintza-ildoak bilatzea (Macías, 1999).

Lehen hezkuntzako gorputz-hezkuntzaren helburu nagusia haurren artean jarduera fisikoa eta kirola sustatzea da. Adin goiztiarretan jarduera fisikoa eta kirola egitea oso onuragarria izan daiteke haurren garapen fisiko, mental eta emozionalerako. Gainera, txiki-txikitatik ohitura osasungarriak irakastea eta sustatzea lagungarria da gaixotasun kroniko asko prebenitzeko. Beraz, Lehen Hezkuntzako gorputz-hezkuntza funtsezko tresna da haurren artean jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko, haien osasuna eta ongizatea modu integralean sustatuz (González Sánchez, 2011).

Horrela, Lehen hezkuntzako ikasleen artean kirolari buruzko genero-estereotipoak ikertzeraz behartuta ikusi dut nire burua, genero-estereotipoek haurrek kirol-garapenean eta bizitzako beste alderdi batzuetan duten potentziala eta aukerak mugatu ditzaketelako.

Gizarteak, kirol batzuk "mutilentzat" direla eta beste batzuk "neskentzat" direla onartzera behartu gaitu. Ondorioz, haurrak zenbait kiroleetatik kanpo senti daitezke edo "beste generorako" kiroleetan parte ez hartzeko presioa senti dezakete. Horrek, haurrak kirol-jardueretan parte hartzea muga dezake, baita trebetasun sozial garrantzitsuak garatzeko gaitasuna ere, hala nola lankidetzaz, gaitasun osasungarria eta autokonfiantza.

Gainera, genero-estereotipoek genero-desberdintasuna sustatu dezakete kirolean eta bizitzako beste esparru batzuetan. Neskek eta emakumeek kirolean bete-betean parte hartzeko oztopoak izaten dituzte askotan, hala nola baliabide eta aukera falta,

diskriminazioa eta jarraitu beharreko eredu femeninorik eza. Lehen Hezkuntzako ikasleen artean kirolari buruzko genero-estereotipoak ikertzeak oztopo horiek identifikatzen eta horiei heltzeko neurriak hartzen lagun dezake.

Laburbilduz, Lehen Hezkuntzako ikasleen artean kirolari buruzko genero-estereotipoei buruz ikertzea garrantzitsua da genero-berdintasuna sustatzeko, kirol-jardueretan haur guztien parte-hartzea areagotzeko eta haien garapen integralerako garrantzitsuak diren trebetasunak eta balioak sustatzeko.

Horrela, nire kerketa-lanaren marko teorikoa Lehen Hezkuntzan kirolarekin lotutako genero-estereotipoen betikotzean eragiten duten faktoreen azterketan oinarritzen da. Emakumeek kirolean izan duten parte-hartzearen bilakaera historikoa eta horrek gaur egun dauden genero-estereotipoetan izan duen eragina ikusi da, baita komunikabideek eta testuliburuak estereotipo horien eraikuntzan izan duten eragina ere. Halaber, genero-estereotipo horiek gorputz-hezkuntzan eta hurrek kirol-jarduerak hautatzean nola agertzen diren sakondu da, kirol-erreferenteek Lehen Hezkuntzako ikasleen genero-identitatearen eraikuntzan duten zeregina ere aztertuz.

Nire gradu amaierako lanaren helburu nagusia, jarduera fisikoarekiko eta kirolarekiko estereotipoen pertzepzioan egon daitezkeen desberdintasunak identifikatzea da, generoaren eta mailaren arabera. Horrela, helburu hau kontuan hartuz, Lehen Hezkuntzako ikasleen artean galdetegi bat pasatu da, eta ondoren, galdetegi horietako emaitza eta ondorioak aztertuko dira.

2. Marko teorikoa

2.1. Emakumea historian zehar

Urte askotan zehar, mundu osoko emakumeen historia, desberdintasunek eta ekitate ezak markatu dute, eta patriarkatuak izugarritzko boterea hartu du non gobernuek gizarte-, politika-, erlijio-, ekonomia- eta kirol-esparru guztietako gizonen parte-hartzea legitimatu dutela. Guzti hori, aurreiritzi historiko batean oinarrituta dago: lurraldeetan bizi ziren lehenengo komunitateko gizonak ziren etxetik ateratzen zirenak eta familiak elikatzen zituztenak, eta emakumeak berriz, etxea eta seme-alabak zaintzen zituztenak. Gainera, komunikabideek eta publizitateak eginkizun handia izan dute emakumeek ama, emazte edota zaintzaile gisa duten rola berresten, ondorioz, emakumeak familiakoak ez diren eremuetan gidatu, gobernatu edo jarduteko dituen gaitasunak gutxietsiz (Peña eta Sánchez, 2020).

XIX. mendean kirol-arloan gertatu zen sorkuntzarik garrantzitsuenari dagokionez, hau da, Joko Olinpikoei dagokionez, lehenengo aldiz 1896an Atenasen ospatu ziren, eta emakumeak erabat kanpo gelditu ziren. 1900ekoetan, bi diziplinatan baino ez zuten parte hartzeko aukera izan: golfa eta tenisa, ustezko izaera femeninoarekin bat zetozela uste zuten kirolak, hain zuzen (Teijeiro, Patiño eta Padorno, 2005).

Hogeigarren hamarkadan, kirolaren inguruan nolabaiteko moda bat sortzen da, eta lehiaketan inguruan emakumearentzako rol berriak sortzen dira, automobilismoan, motoziklismoan edo hegazkingintzan proiektatzen zirenak, eta kirol horietan, emakumea propaganda- edo publizitate-elementu gisa ere agertzen hasten da. Kirol-prentsaren gorakadak, izugarritzako eragina izan zuen norabide horretan, kirol-arloko egunkarietako argitalpenek emakumezkoen ikusleak zaintzen hasi zirelako eta kirol-lehiaketetan emakumeen presentzia nabarmen erakusten hasi zirelako (Fullana Puigserver, 2020).

Emakumeek XX. mendearen hasieran kirola egiteko zituzten zailtasun nabarmenekin eta Gerra Zibilak eta erregimen frankistak ekarri zuten atzerakadarekin, espainiako emakumezkoen kirolak ia ez zuen eraginik izan lehen hitzordu olinpikoetan; izan ere, Olinpiar Jokoak ezarri zirenetik, udako edizio batek eta neguko beste batek soilik izan zuten Espainiako ordezkariak (Jiménez, 2015). 60ko hamarkadara arte ez zen aldaketa handirik gertatu gizartearen bizimoduan: emakumea ordaindutako lan-merkatuan sartu zen eta eskola mistoak agertu ziren, 30eko hamarkadan Gorputz Hezkuntzak zuen garrantzia eta praktika berriz ere ahalbidetuz, helburu didaktiko eta pedagogiko argiekin (Gómez-Colell, Medina-Bravo eta Ramón, 2017).

60ko hamarkadaren amaieratik aurrera, emakumeen kolektibo garrantzitsuak mugimendu feminista eta erregimenaren aurkako mugimendu gisa antolatu ziren. Talde horiek oso agerikoak izan ziren trantsizioan zehar, eta ondorioz, haien eskaerak agenda politikoan txertatu ziren. Emakumeen Mugimendu Demokratikoa (EMD), 1965ean sortua, garrantzitsuenetako bat izan zen bertan bildu zituen emakume independente ugariengatik, Espainiako Alderdi Komunistarekin lotuta baitzegoen. EMDtik eta beste kolektibo feminista txiki askotatik abiatuta, 70eko hamarkadako Espainiako Mugimendu Feminista sendotu egin zen. Trantsizioaren garaia esparru politiko egokia izan zen espainiako mugimendu feministarentzat, emakumearen gaiak piztu zuen interesak alderdi politikoek emakumeen erakundea sortzea eragin baitzuen (Alonso eta Furio, 2007)

Horrela, XX. mendearen amaieratik XXI. mendera bitartean, emakumearen gizarte-zereginari buruzko zenbait gizarte-irudikapen eta paradigma aldatu ziren. Esate baterako, emakumeek herritartasuna erabiltzeko eskubidea gero eta nabarmenagoa bihurtu

zen, hainbat kolektiboren eta erakunderen borrokari esker. Talde eta erakunde horien helburua, gizartean ez zegoen ekitatea agerian uztea eta estatua eta erakundeak presionatzea zen, emakumeentzako ekintza-eremuak zabal zitzaten, haien gaitasunak, trebetasunak eta trebetasun partikularrak aitortuz, beti ere, alderdi maskulinoarekin alderatu gabe, baizik eta emakumearen garrantzia aitortuz (Peña eta Sánchez, 2020).

2.2. Emakumea gaur egungo gizartean

Azken 30 urteotan Espainiako gizartean izan den aldaketaren alderdi nabarmenetako bat emakumeek gizartean betetzen duten papera da. Esparru politiko, sozial eta ekonomikoan XXI. mendearen hasieran baino protagonismo eta integrazio handiagoko eginkizun berri bat, emakumeen multzo nazionalen ikus daitekeena (Alonso eta Furio, 2007).

Ez da ahaztu behar, gaur egun, gizonak baino emakume gehiago ari direla unibertsitate-ikasketak egiten, eta Espainiako historian lehen aldiz, emakume gazteenen jarduera-tasa eta adin bereko gizonena berdindu direla; izan ere, emakumeak, zailtasunak izan arren, postu garrantzitsuak betetzen hasi dira. Emakumeek gizarteko, ekonomiako edo kulturako esparru anitzetan duten partaidetza handitu egin da azken urteotan, eta maila horiek berdintasunezkoak izan ez arren, aurrerapen handi baten adierazgarri dira. Espainiako gizartea genero-diskriminazioa salbatzea lortzen ari den ageriko sintomak dira (Alonso eta Furio, 2007).

Gaur egun, ia inork ez du eztabaidatzen emakumeen kirola ahalduntzeko prozesua garapen atzeraezina eta geldiezin dela, batez ere emakumea kirol-jardueran sartzeko normalizazioa dela eta. Baita emakumeen kirolak lehia-mailan duen garrantziagatik, nahiz eta oraindik merkatuaren oinarriak jartzen ari diren eta txapelketa horien eragin mediatiko eta ekonomikoari buruzko eztabaidaren atarian gauden (Fullana Puigserver, 2020).

Emakumezkoen lehiaketak nazio eta nazioarte mailan gertatzen ari dira eta Olinpiar Jokoetan emakumezkoen presentzia planteatzen ari garenaren ebidentzia sendoa bihurtu da. 1900. urteko Parisko Olinpiar Jokoetako emakumeen presentzia 2000ko Sydneyko Olinpiar Jokoetako parte-hartzaileen %40ekin alderatzen badugu, kirola historikoki maskulinoa izan dela baina gaur egun izateari utzi diola hautematen da (Fullana Puigserver, 2020).

2.3. Emakumeak komunikabideetan

Kirolaren mundua gizonentzat gorde izan da tradizioz eremu guztietan (praktika, irakaskuntza, kudeaketa...), eta ibilbide historiko zehatzik egin nahi izan gabe, adibide gisa,

emakumearen presentziaren bilakaera azpimarratuko genuke, gaur egungo kirolaren adierazlerik handienetako batean: Olinpiar Jokoak. Kirol olinpikoa jarri da adibidetzat gainerako kiroletarako erreferentzia delako; kirol-diziplina desberdinetako Nazioarteko Federazioek haien arrastoa jarraitzen dute. Horrela, esan daiteke, emakumeak guzti horietan duen presentziaren bilakaera, ibilbide olinpikoan egindakoaren oso antzekoa dela (Angulo, 2007).

Komunikabideen arloan, kirol-kazetaritza nagusiki maskulinoa den lurralde gisa eraiki da, non genero-desberdintasunak legitimatu eta areagotu diren. Kuantitatiboki, emakumeek ordezkariak txikia izan dute kirol-estalduran, emakume kirolariak gizonekin alderatuta balio gutxi duten irudipen faltsua sortuz. Kualitatiboki, emakume kirolarien irudikapena genero-estereotipoen bidezkoa izan da urteetan zehar (Gómez-Colell, Medina-Bravo eta Ramón, 2017).

Kirol-informazioak eskari handia du gaur egungo gizartean, eta horren erakusgarri da albistegiek kirol-aktualitatearen berri ematen duten denbora. Komunikabideak informazio-iturri eta eragin-iturri saihestezinak dira gizartearentzat, hori dela eta, beharrezkoa da berrikustea nola eragiten ari diren kirola sustatzeko diskurtsoak adin, sexu eta ezaugarri desberdinetako biztanleen artean (Sainz de Baranda Andújar, 2014).

Komunikabide informatiboekin hasten da kirol-jardueren maskulinizazioa edota emakumea lehiaketetatik baztertzea, kirol-praktikatzaile bezala baztertzen dituzte emakumeak. Gehiegizko kasuetan, komunikabideek emakumei ematen dieten zeregina kirolaren bertsio "femeninoagoa" da, hau da, emakumea interpretazio matxistekin lotzen dute, emakumearen zeregina gorputzaren arrakastarekin bakarrik mugatzen delarik (Ibáñez, 2001).

Kontuan hartu beharreko zerbait da maila teknikoa lortu duten emakumezkoen lehiaketak, hala ere, lorpen hauek oharkabean pasatzen dira komunikabideentzat, isiltasun informatibora kondenatuak, ondorioz. Argitaratzen diren emakumezkoen kirolari buruzko albiste urriek ez dute inolako informazio-logikarik, jarraitutasunik edota zorrotzasunik, ez baitaude emakumeen espezialitatearen zati hori jarraitzen duen kazetaririk (Ibáñez, 2001).

Aurrekoarekin oso lotuta dagoen beste alderdi mugatzaile bat futbola da, kirol-dimentsioa gainditu eta ikuskizun bihurtu den kirola, horrek dakartzan konnotazio guztiak ahaztu gabe. Futbolak komunikabideen eta gure gizartearen zati oso handi bat hartzen du, gainerako kirolei eskainitako eta eskaini beharreko espazioa janez (Angulo, 2007).

Komunikabideek, eta, zehazki, kirol-prentsak, emakumeek kirolean duten parte-hartzearen zenbait alderdi ez ezagutzeak eta ez erakusteak, izugarritzko eragina du ikusleen iritzietan emakumezko kirolariak baloratzerakoan (Sainz de Baranda Andújar, 2014).

Gaur egun kirolaren munduan emakumearen benetako presentzia zein den azaldu ondoren, hedabideetan zenbat eta nola islatzen den erakustea ezinbesteko bihurtzen da. Angulok (2007) espainiako hiru kirol-egunkari garrantzitsuenetan emakumezko kirolarien albiste eta argazkiek zer nolako presentzia duten aztertu zuen, eta ikerketa horretatik ondorioztatu daiteke emakumezkoen kirolaren ehunekoak – aztertutako 16 egunetan- oso txikiak direla:

- 2.313 orrialdetatik 11 bakarrik egon dira emakumeen kirolari eskainita (% 0,44).
- 237 albiste bakarrik egon dira emakumeari eskainita– % 8,61 – 2.766 albisteetatik (futbolari eskainita egon gabe).
- Kirolari bideratutako 1586 argazkietatik, 108 argazki bakarrik daude emakume kirolariei, kazetariei edo kirol-agintariei bideratuta (% 7), futbola kontuan hartu gabe.

Beste modu batera esanda, komunikabideetako kirol-informazioaren ia % 95a dago gizonezko kirolari bakarrik bideratuta, eta kontuan hartuta egunkarietako kirolari eskaintzen dioten espazioa beste esparru bati eskaintzen diotena baino altuagoa dela, ez diote inolako arreta berezirik eskaintzen emakumezkoen kirolari. Salbuespen bezala, Gara da, % 11,5ekin, emakumezkoen kirolari albiste-portzentaje handiena eskaintzen dion egunkaria. Azken lekuan Marca dago, % 2,9rekin bakarrik (ASPIC-Comunicación, 2013).

Amerikako Estatu Batuetan eta Espainian egunkari digitalen bidez transmititutako ereduari buruzko azterlan batean, emakumei buruzko albiste bakoitzeko gizonari buruzko hamabost albiste daudela nabarmentzen dute (Frideres y Palao, 2006 apud Sainz de Baranda Andújar, 2014). Nazioartean, Espainiako hedabideetan aurkitu daitekeenaren oso antzekoa da (Gómez-Colell, Medina-Bravo eta Ramón, 2017).

Datu horiekin argi geratzen da kirolak gizonezkoen lehiaketarekin soilik lotuta jarraitzen duela, eta hori etengabe islatzen da komunikabideetan. Titular batek 'Bihar saskibaloiko mundiala hasten da' nabarmentzen badu, ehuneko handi batek ziurtzat joko du gizonezkoen mundialari buruz ari garela, ez da inola ere gizonezkoen mundialari buruz ari garela zehaztu behar. Emakumeen kirolean ordea, emakumezkoen abizena darama beti atzean, gizonezkoen lehiaketarik ez dagoen diziplinetan izan ezik, hala nola igeriketa sinkronizatuan edota gimnasia erritmikoan (ASPIC-Comunicación, 2013).

Emakumezkoen buruz proiektatzen den irudia eta ematen den informazioa ez dira nahikoa ume eta nerabeen erreferente mediatiko bihurtzeko, eta ondorioz, emakume kirolaririk ez egotea indartzen da gizartean (Gómez-Colell, Medina-Bravo eta Ramón, 2017). Komunikabideek neska eta emakumeak modu ekitatiboan erakusten ez badituzte, gazteenek ez dute eredu egokirik izango emulatzeko. Horren ondorioz, etorkizunean emakumeen parte-hartzea gero eta baxuagoa izatea ahalbidetu dezake (Pedersen, 2002, apud Sainz de Baranda Andújar, 2014).

Bestalde, oraindik ere estereotipo kulturalak daudela saihestezina da, emakumeak edertasunarekin, adeitasunarekin, sinpatiarekin edo gozotasunarekin lotzen dituzten estereotipoak, alegia, gizonei lotutako indarrarekin, potentziarekin eta profesionaltasunarekin alderatuta. Gainera, oraindik ere ohikoak dira kazetarien aldetik emakume kirolarien bizitza pertsonalari buruzko erreferentziak egitea (ezkondua, ama) edota haien lorpenak senideen laguntzarekin lortzen dituztela baieztatzea (ASPIC-Comunicación, 2013).

Zenbait hedabidek gustuko dute kirol-jardueratik oso urrun dagoen emakume-eredu bat erakustea, ia biluzia, gehienetan. Badirudi zenbait hedabidek interes handiagoa dutela eduki erabat matxista duten irakurleak ekartzea, kirol-informazioa nahiago dutenak baino (Ibáñez, 2001). Kirol-informazioa tratatzen duten zenbait ikerketek edukien arinkeria, estereotipoen areagotzea eta emakume kirolarien irudikapen eskasa salatzen dituzte (Sainz de Baranda Andújar, 2014). Emakumeak komunikabideetan duten parte hartze eta presentzia eskasa guztiz lotuta doa gaur egungo gizarteko egoerarekin (Gallur eta García, 2019).

Pertsona baten generoa aipatzea, protagonista den egoera bati buruz hitz egiteko, positiboa zein negatiboa izan, pertsonaren identitatea babesteko modu bat izan daiteke lanbidearen kode deontologikoak errespetatuz. Hala ere, aldi berean pertsona horri garrantzia kentzeko modu bat izan daiteke, pertsona hau ikusezin bihurtuz edota ikuspegi estereotipatu bat emanez (Gallur eta García, 2019).

Erantzukizun partekatua eta maila guztietako hezkuntza eta prestakuntza egokia (goi-mailako hezkuntzako erakundeetan, idazlanetan eta herritarren artean) ezinbesteko aukerak dira egungo gabeziak gainditzeko. Kirol-emakumearen tratamendua kuantitatiboki eta kualitatiboki hobetzeko, erakunde mediatikoek aldaketa esanguratsuak ezartzea ezinbestekoa da, hala nola, erabaki-karguak (Hardin, 2013) edota kazetari-maila desberdinak (Gómez-Colell, Medina-Bravo eta Ramón, 2017).

Argi dago beraz, komunikabideek emakumeen kirolari egiten dion omisioak eta ematen zaion tratamendu okerrak ondorio larriak ditu adin goiztiarreko neskenan. Kirolari buruz ikastetxeetara eta etxeetara iristen den ikuspegiak, gizonezko protagonistak ditu eta neskek, nerabeek batez ere, mundu horretan duten parte-hartzearen ikuspegi desitxuratua jasotzen dute. Ez dute jarraitu beharreko eredu edo erreferenterik, ez dago beren prestakuntza-aldian imitatu beharreko eredu izan daitekeen kirolaririk; ez dute informazio nahikoa kirol-munduan (Moya-Mata eta Ros, 2018).

2.4. Testuliburuak lehen hezkuntzan

Eskolako testuliburuetan agertzen diren irudiek, pertsona, gertakari, gizarte-talde, genero, arraza eta abar negatiboki nabarmentzen dituzten balorazioak izan ditzakete, ikasleengan aurreiritziak, diskriminazioak eta estereotipoak sortu ditzaketenak, hain zuzen ere. Horien azpian orientazio ideologiko jakin batzuk egon daitezke, gure ikasleen kontzientzia kolektiboan iragazten direnak, aldez aurreko hausnarketarik egin gabe, alegia (Moya, Ros, Bastida eta Menescardi, 2013).

Gure ikasleei Espainiako kirol-erreferente olinpikoei buruz galdetzen badiegu, berehala agertzen dira gizonezko kirolarien izenak. Aldiz, ez dute emakumezko kirolari olinpikorik ezagutzen, nahiz eta euren kirol modalitatean urrezko domina lortu, munduko txapeldun izatera ere iritsiz (Moya-Mata eta Ros, 2018).

Rabadán eta Moya-Matak (2020) egindako azterlanak adierazten duen bezala, prentsan, irratan edo telebistan egindako azterlanetan ez dira emakume olinpikoen irudikapenari buruzko erreferentziarik aurkitu. Kirolari olinpikoei testu-liburuetan duten irudikapena neurtzeko, aurkitutako testu-erreferentziak kuantifikatu dira. Beraz, Lehen Hezkuntzan, Gorputz Hezkuntzako testu-liburuetan gizonezko kirolarien presentzia % 72.2 da. Egindako ikerketa adibide bat da, Lehen Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako testu-liburuetan emakumezko kirolari olinpikoen erreferente gutxi daudela erakusteko. Honen ondorio da, hezkuntza-etapa honetako ikasleentzat emakumeen kirol-eredu gutxi egotea.

Guzti honek argi uzten digu Lehen Hezkuntzako ikasleek kirolari buruz zer nolako informazio mota jasotzen duten, emakumeen kirolari buruz, zehazki. Testuliburuak hezkuntza-material oso garrantzitsuak dira kirol olinpikoaren inguruko informazioa jasotzeko, historia egin duten kirolari handi horiei ikusgarritasuna emateko, hain zuzen ere (Moya-Mata eta Ros, 2018).

Horregatik, beharrezkoa da material mota hori eta haren ezkutuko curriculumaz aztertzea. Azterketa orokor bat egitean, emaitzek erakusten dute Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko Gorputz Hezkuntzako testu-liburuek protagonismo handiagoa ematen diotela gizonezkoei emakumezkoei baino (Moya, Ros, Bastida eta Menescardi, 2013).

Beharrezkoa da argitaletxeek curriculum-materialak berrikustea, emakume olinpikoen presentzia areagotzeko eta genero-estereotipoetatik aldentzen diren eredu femeninoak eskaintzeko. Horrela, haurrek ere aukera izango dute identifikatuta sentitzeko, kirol-eredu femeninoak aukeratzeko, eta horrela, gizarte-eremu guztietan genero-berdintasuna lortzen laguntzeko. Bien bitartean, irakasleek modu kritikoan erabil dezakete material hori ikasgelan, ikasleei jakitun eginez erreferenteak eta partaideak falta direla adieraziz (Rabadán eta Moya-Mata, 2020).

Kirolaren munduan asko dago egiteko emakumeak gizonen aukera berberak izan ditzan; izan ere, gizonentzako eta gizonentzako kirolak daudela adierazten da uneoro, aldiz, emakumeen irudia, barregarri, erotizatu edo ikusezin bezala ikusten da oraindik. Erruaren zati handi bat komunikabideek dute; izan ere, emakumeen kirolen presentzia eta lorpenak ia baliogabeak bihurtzen dituzte, eta, askotan, genero-estereotipoak nabarmentzen dira (Moya-Mata eta Ros, 2018).

2.5. Estereotipoak gorputz hezkuntzan

Generoa eraikuntza kultural eta soziala da, eta horren bidez definitzen da zer den emakume izatea eta gizon izatea. Hau erabiltzen da eraikuntza sozialak nabarmentzeko zer den gizon izatea, zer den emakume izatea eta zer ez (Illera, 2017).

Estereotipoak boterearen egitura patriarkalari eusteko eraiki eta gorde dira, pertsonengan genero bakoitzari dagozkion irudikapen mentalak sortuz. Horren ondorioz, bizi garen gizartearen kapital kultural, ekonomiko eta politikoaren banaketa desberdina izan da (Illera, 2017).

Identitate pertsonala osatzen duten irudikapen mental horiek, subjektuak berak eraikitzen ez dituenean, ezarritako botereak ezartzen ditu, eta maskulinitasunaren eta femininitasunaren irudikapen estereotipatuen bidez garatzen dira (Illera, 2017).

Urteetan zehar, kirolen sailkapen-balio batzuk transmititu edo jaso ditugu, pertsona bakoitzaren generoaren arabera, eta ez gizarte-eremuan bakarrik, baita merkataritzan, eskolan edota politikan ere. Gorputz-hezkuntzako klaseetan eragiten duten genero-estereotipo horiek faktore pertsonalengatik, harremanengatik edo faktore kulturalengatik izan daitezke, besteak beste (Ángel, García eta Zamorano, 2007).

Genero-desberdintasunak ez dira desberdintasun biologikoei soilik dagozkienak, soziabilizazio primarioko eta sekundarioko prozesuak garatzeko erabiltzen diren testuinguru sozial, kultural eta historikoez zehazten baitituzte. Identitate pertsonala eraikitzea prozesu konplexua da, eta faktore pertsonalek, harreman-faktoreek eta faktore kulturelek esku hartzen dute prozesu horretan. Faktore horiek unean-unean erlazionatzen eta jarduten dira, aldi berean (Illera, 2017).

Alonso, Rosa eta Ruiz-en (2021) ikerketak erakusten digun bezala eta Hidalgo eta Almonacid-en (2014) ikerketa bat datorren bezala, genero-estereotipoetan eragina duten faktore pertsonalei erreparatzen badiegu, alde batetik, gorputz- eta kirol-jarduerarako gaitasunari eta trebetasunari buruzko sinesmen tradizionalak oraindik ere mantentzen direla ikusi dezakegu, baita jarduera jakin batzuekin lotutako ezaugarriei buruzkoak ere, hala nola, indarkeria-oldarkortasuna eta mutilen arteko lehia, lankidetzaren eta nesken lasaitasun handiagoren aurrean. Bestalde, gizonezkoen kirolen eta emakumezkoen kirolen arteko ohiko banaketa ez da hain nabarmena; izan ere, bi sexuek onartzen eta partekatzen dituzten gorputz- eta kirol-jardueren multzo handiagoa ikusten da. Hala ere, egoera hori, bereziki, neskak tradizionalki maskulinoa den horretara hurbildu direlako gertatzen da.

Genero-estereotipoetan eragina duten portaera-faktoreei erreparatzen badiegu, alde batetik, neskek zein mutilek jarduera fisikoarekiko interes bera dutela adierazten badute ere, ikasleek mutilek neskek baino jarduera fisiko gehiago egiten dutela ikusten dute, eta zirkunstantzia hori, besteak beste, jardueren eskaintzak baldintzatu dezake; izan ere, eskola-eremuan eta eskolaz kanpoko esparruan, oraindik ere nagusi dira gizonezkoen kirolak. Bestalde, nerabeek egiten dituzten gorputz- eta kirol-jardueren ondorioz, neskak jarduera indibidualetan kokatzen dira nagusiki, kasu askotan osagai estetiko handia dutenetan, eta mutilak, berriz, gehiago atxikitzen dira talde- eta oposizio-jardueretan (Ángel, García eta Zamorano, 2007).

Ingurune faktoreei dagokienez, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako genero-desberdintasunetan eta aukera-desberdintasunetan eragin handia dutela ikusi daiteke. Azterlanean ikus daitekeenez, neskek zailtasun handiak erakusten dituzte gizonezkoen eremukotzat jotzen diren jarduerak praktikatzeko, bai haietarako sarbidea zuzenean ixten zaielako, senideen eta lagunen disuasioarekin edo oposizioarekin topo egiten dutelako. Oztupo horiek gainditzea eta jarduera fisiko hori praktikatzea lortzen duten neskek edo mutilek beren inguruko pertsonengandik iruzkin sexista eta mespretxuzkoak jasotzen dituzte, eta kirol- edo jarduera-mota horretan parte hartzea gaitzesteko eta gaitzesteko giro inplizitua gainditu behar dute (Ángel, García eta Zamorano, 2007).

Eskola-prestakuntzak irauten duen bitartean, haurrek genero-rolekin eta pertzepzioekin identifikatzen direla adierazten dute zenbait portaeraren bidez, hala nola jostailuak etiketatzeko moduak eta jarduerak. Adin txikitatik, haurrek jarduera eta portaera desberdinak genero bateri edo besteari egokitzen dituzte. Estereotipo baten arabera definitzeak eragina du umeen eremu kognitiboaren, afektiboaren eta psikomotorraren garapenean (Bravo eta Carazo, 2018).

Planteatutako problematikak genero-desberdintasuna gizarte- eta kultura-arloan eraikitako estereotipoek sortzen dutela iradokitzen du, eta gizarte-arau gisa ezartzen direla, gizakien portaera moldatuz. Genero-estereotipoek gizakien ekintzak mugatzen dituzte, maskulinoari eta femeninoari dagozkien portaerak kokatzen baitituzte, eta horietako bakoitzak gizartean bete beharko duen rola proiektatzen dute (Hidalgo eta Almonacid, 2014).

Ondorioz, norberak bere genero-identitatea eta sexualitatea eraikitzen ditu, sozializazio-prozesu konplexuak zeharkatuz, hezkuntza-erakundeetan nabarmentzen direnak, alegia (Hidalgo eta Almonacid, 2014).

Orain, Gorputz Hezkuntzaren eremuari erreparatzen badiogu, ikasgai hau eskola-curriculumeko irakasgai bati dagokio, eta bertan genero-desberdintasunak ikus daitezke, arlo horretako edukietan hari lotutako irudien eragina dutelako batez ere.

Eskola-testuinguruaren barruan, Gorputz Hezkuntzako klaseek genero-irudikapenen arteko desberdintasunak nabarmenagoak egiten dituzten espazio bat osatzen dute, ikasgelan planteatutako jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak estereotipoak betikotzeko tresna izan baitaitezke (Alvariñas-Villaverde eta Pazos-González, 2018).

Esan daiteke, oraindik ere Gorputz Hezkuntzan, ikuspegi androzentrikoa dagoela, hezkuntza-esparrua inbaditzen duena, alegia; izan ere, genero-estereotipoak errepikatzen dira eta gizartean maskulinitzat jotzen diren balioak sustatzen dira, neskak saioetatik nolabait baztertuz, emakumeen gaitasunei balioa kentzen zaielako (Hidalgo eta Almonacid, 2014).

2.6. Kirol-erreferenteak

Jokabide-eredu bat (role model) imitatu edo iritzia eman nahi zaion norbait da. Beraz, eredugarritzat eta besteentzat balioetsutzat hartzen den pertsona bat da. Identifikazio horrek hainbat forma har ditzake, besteak beste, ereduarekin hautemandako antzekotasuna, bere portaeraren emulazioa edo bere jarrera eta balioen asimilazioa (Yancey, 1998).

Eskola-adinean, eliteko kirolariek egiten dituzten ereduak ez dira berdinak mutilentzat eta neskentzat. Ikerketa gehienek erakusten dute mutilek kirol-eredu gehiago dituztela eta ia soilik genero berekoak aukeratzeko joera dutela; aldiz, neskek proportzio berean aukeraten dituzte genero-eredu gurutzatuak eta emakume-eredu gurutzatuak. Fenomeno horren azalpena bi faktorek eragin dezakete: alde batetik, gizonen kirolean duten estatus handiagoa, nagusitasun maskulinoa delako; eta, bestetik, eredu maskulinoen eskuragarritasun handiagoa, femeninoena baino (Méndez-Giménez, Fernández-Río eta González, 2008).

Emakumeek eredu atletiko maskulinoak eta femeninoak izateko joera dute, ezin dituztelako behar guztiak batera edo bestera ase. Gizonen beren estatus gorenagatik eta berehalako prestutasunagatik erakartzen dituzte, eta emakumeak, genero bereko jokabide-ereduek eman dezaketen antzekotasunagatik bilatzen dituzte (Giuliano, Turner, Lundquist eta Knight, 2007).

Gizonentzat ez dago halako paradoxarik, antzekotasuna eta estatusa pakete berean (maskulinoa) lortzen dutelako. Eliteko emakumezko atleten estaldura mediatikoa handitzeko joerarekin jarraituz gero, espero hori arazo txikiago bihurtzea da, eta neskek eta emakumeek gero eta kirol-eredu handiagoak aukeratzeko dituztela aurreikusten da (Giuliano, Turner, Lundquist eta Knight, 2007).

Pertsonengan eragina duten ereduak aldatu egiten dira denborarekin. Bizitzako lehen urteetan, haurrek gertuko senideak hartzen dituzte erreferentziazat, jarrera eta portaera positiboak ematen baitizkiete. 5 urte bete arte, eraginik handiena gurasoen eraginari zor zaio. Eskola-adinean, jokabide-ereduak ireki egiten zaizkie lagunei eta irakasleei, eta, hazi ahala, beste inspirazio-iturri batzuk agertzen dira, hala nola kirolariak, telebistako izarrak, musika-taldeak, aktoreak edo entrenatzaileak. Gurasoek, lagunak eta irakasleek jokabide-eredu izaten jarraituko dute nerabezaroan, gaztaroan eta helduaroan, bereziki emakumeentzat (Méndez-Giménez, Fernández-Río eta González, 2008).

Komunikabideek emakumeen kirolari ematen dioten ahanzturak eta kirol horri ematen dioten tratamendu desegokiak ondorio larria dute nesken prestakuntza-etapan. Kirola egiteari buruz ikastetxe eta etxeetara iristen den bertsioak, batez ere, gizonen protagonista dituzte. Emakumeentzat oro har, mundu horretan duten partaidetza-kuotaren interpretazio desitxuratua geratzen da. Ez dute jarraitu beharreko mitorik, ez dute erreferenterik, informazioa falta zaie, eta ez dago karisma duen kirolaririk beren prestakuntza-aldian imitatu beharreko ispilu izan daitekeenik. Ez du inor harritu behar egunetik egunera zailagoa izateak neskek eskoletan kirola egitea eta neskek lehiaketa,

entrenamenduetako eta lehiaketetako ahalegina ikaskideen pribatiboak direla argi eta garbi onartzea (Ibáñez, 2001).

Kirola haur eta gazteei bizi diren gizartearen berezko balio positiboak irakasteko bide egokitzat hartzeko joera dago. Ildo horretan, eliteko kirolariak jokaera-eredutzat jotzen dira gazteentzat, idealak eta portaera-arauak baitira (Stornes, 2001). Nahiz eta historikoki zale amorratuena izateko emakumeek gizonek baino joera txikiagoa izan duten, ikerketa desberdinek generoen arteko aldea murrizten ari dela erakusten dute (Giuliano, Turner, Lundquist eta Knight, 2007).

Lan honen helburua bete ahal izateko, inkesta bat diseinatu eta bideratuko zaie Lehen Hezkuntzako ikasleei online, generoaren eta mailaren arabera jarduera fisikoaren eta kirolaren estereotipoei buruz dituzten pertzepzioak eta iritzia ezagutzeko.

Inkesta Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara egitea erabaki zen, adin-tarte horretako pertsonen genero-estereotipoei buruz duten iritzia jakin nahi delako. Lehen Hezkuntzako ikasleak prestakuntza-adinean daude, hau da, lehen hezkuntza haurren garapen kognitibo, emozional eta sozialerako etapa erabakigarria da. Izan ere, etapa honetan, haurrak beren nortasuna eta balioak prestatzeko eta eraikitzeko aldi batean daude. Genero-estereotipoak eratu eta sendotu egiten dira etapa honetan, eta, beraz, garrantzitsua da gaur egun duten ikuspegia zein den jakitea.

3. Helburuak

Helburu orokorra:

- Jarduera fisikoarekiko eta kirolarekiko estereotipoen pertzepzioan egon daitezkeen desberdintasunak identifikatzea generoaren arabera eta mailaren arabera (Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara)

Helburu espezifikoak:

1. Ikasleen kirol erreferenteak zeintzuk diren analizatzea
2. Sexu bereko kirol-ereduak hautatzeko joera dagoen aztertzea
3. Ikasleek kirolak generoaren arabera sailkatzen dituzten ikertzea
4. Ikasleen ustetan, jarduera fisikoarekiko neskek eta mutilek interes bera duten analizatzea
5. Neskei eta mutilei jarduera fisiko berdina gustatzen zaien aztertzea
6. Ikasleak kirolari buruzko genero-estereotipoekin bat datozen ikertzea

4. Metodologia

4.1. Lagina

Bizkaiako Ikastolen Elkarteko zentro bateko Lehen Hezkuntzako lehen mailatik seigarrenera bitarteko ikasleak aztertu dira, 207 ikasle guztira. Ikasleen adina 6 eta 12 urte artekoa da, ikasle guztien bataz bestekoa $\pm 9,9$ urte izan direlarik. 207 ikasle horietatik, 109 mutilak izan dira (%52,9), 81 neskak (%39,3) eta 16 pertsonak ez dute haien sexua zehaztu (%7,8).

4.2. Ikerketa-lanaren instrumentuak

Datuak biltzeko, *Genero-estereotipoak kirolean* galdetegia egin da. Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta, gaiarekin lotutako zenbait alderdiri buruz dituzten iritziak eta pertzepzioak ezagutzeko (Ikus 1. eranskina). Horretarako, Google Forms plataforma erabili da, eta horri esker galdetegi bat egin ahal izan da online. Galdetegia bi ataletan banatzen da, 11 galderez osatutako atal bana, hain zuzen.

Inkesta galdera mota desberdinez osatuta egon da; galdera itxiez non aukeratu beharreko aukera desberdinak izan ditu, galdera iriekiez eta 1etik 4ra bitarteko eskala zuten galderez, inkestatutak baieztapen jakin batekin duen adostasun-maila ezagutzeko.

Galderak nik egin nituen, aldeztatik ezarritako metodologiari jarraituz eta azterketarako informazio garrantzitsua eta zehatza biltzeko asmoz.

Inkesta egin ondoren, hezkuntza-erakundean eskuragarri dauden komunikabideen bidez partekatu zen esteka, eta, horrela, haurrek aldeztatik adostutako ordutegian erantzun ahal izan zuten. Lortutako emaitzak estatistikoki aztertu dira, azterlanaren ondorioak ezarri ahal izateko.

Laburbilduz, Google Formsekin egindako online inkesta bat erabili zen azterketa egiteko beharrezko datuak biltzeko, eta horri esker, Lehen Hezkuntzako ikasleei buruzko informazio baliotsua eta zehatza lortu ahal izan da.

4.3. Prozedura

Hainbat etapatan banatutako jarraipena egin behar izan da planteatutako helburuak behar bezala betetzeko. Lehenik eta behin, aukeratutako ikastetxearekin harremanetan jarri nintzen, horrela, zuzendariarekin harremanetan jarritz.

Ikastetxeko zuzendariarekin harremanetan jarri ondoren eta ikerlanaren helburu nagusiak azaldu ondoren, ikasleen gurasoei bidali beharreko baimena adostu eta egin zen, izan ere, ikasleak adin txikikoak izanik, gurasoen onespina eta baimena ezinbestekoa zen

ikasleek galdetegia bete zezaten. Gurasoei bidalitako gutunean, galdetegia anonimoa izango zela adierazi zitzairen, baita galdetegiko emaitzak konfidentzialak izango zirela ere.

Galdetegia hautatzeko prozesua egin ondoren, eta gurasoen onespenerekin, Lehen Hezkuntzako zuzendariari eta Lehen Hezkuntzako tutore arduradunei eman zitzairen galdetegia, haiek onar zezaten. Lehen Hezkuntzako 1. mailako irakasleek bakarrik ikusi zuten bideraezina ikasgelan galdetegia egitea, bai nirekin, bai haiekin. Beraz, gurasoekin etxean egitea erabaki genuen. Nire partetik zein zuzendaritzatik eskatu zen gurasoek ez zezaten eraginik izan ikasleen erantzunetan. Beste irakasle guztiekin ez zen inolako oztoporik azaldu, beraz, zuzendariarekin eta irakasleekin galdetegiak egingo ziren eguna eta ordua finkatu ziren.

Galdetegia Google Forms plataformarekin egin zenez, honen URL helbidea irakasleei bidali zitzairen, haiek ikasleei bidali zezaten, horrela, adostutako egunean, klasez klase joan nintzen ikasleei nire ikerlanaren helburua eta garrantzia azaltzen. Galdetegia 2023ko maiatzaren 5eko arratsaldeko lehen orduan bete ziren, eta gehienez 15 minutu erabili ziren galdetegiak egiteko, hala ere, mailaren arabera denbora gehiago edo gutxiago erabili zen.

5. Emaitzak

5.1. Galdetegiaren lehenengo atala


Galdetegiaren lehenengo atala, aurretik aipatu izan den bezala, aukeratu beharreko erantzuna zuten galdera itxiez eta galdera iriekiez egon da osatuta.

1. galdera: Kirola praktikatzen duzu?

Ikusi daitekeen bezala, ikasleen ehuneko oso handi batek praktikatzen du kirola, %97,2ak hain zuzen ere. Mutil eta nesken artean ez da inolako desberdintasunik adierazi, ezta lehenengo mailatik seigarren mailararte ere.

1. grafikoa.


Kirola praktikatzen duzu?




1.1. galdera: Zein?

Praktikatzen dituzten kirolak neska eta mutilen artean bereizi da: mutilen dagokienez, erdiak baino gehiago (%54,8) praktikatzen du futbola. Futbolaren ostean gehien praktikatzen duten kirola saskibaloia da (%10,4). Igeriketa, eskalada, atletismoa, txirrindularitza eta eskupilota %3 eta %7aren artean ikusi da, eta gainerakoak (hipika, karatea, multikirola, patinajea, surfa, taekwondoa, arrauna, triatloia, boxeoa, eskia, eskubaloia) %3aren azpitik, pertsona bat edo bik adierazi baitute.

2. grafikoa
Zein? (mutilak)



3. grafikoa.
Zein? (neskak)




Neskei dagokienez, aniztasun gehiago ikusi da, izan ere, gehien praktikatzen den kirola saskibaloia izan da %18,8 batekin. Ondoren dantza izan da %16,8 batekin boleibolak jarraitua %13,9arekin. Futbola (%7,9), igeriketa (%9,9), eta gimnasia erritmikoa (%7,9) ehuneko tarte antzekoan adierazi dira, baita, multikirola (%3,0), yoga (%3,0), hipika (%3,0), eskalada (%3,0) eta karatea (%2,0) ere. Gainontzekoak %2aren azpitik azaldu dira, bat edo bi pertsonak adierazita.

2. galdera: Zein da zure kirolaririk gustukoena?

Ikasleei haien kirolari gustukoena zein den adierazteko eskatu zaienean, %35,4ak adierazi du ez daukala gustuko duen kirolari bat. %14,6arekin, Messi izan da gustuko duen kirolaria, eta ondoren, Nico Williams (%12,5). Iñaki Williams izan da hurrengoa %6,3arekin, Kylian Mbappekin (%6,3) eta Iker Muniainekin (%4,2) jarraituz. Gainontzeko bederatzik kirolariak (Oihane Fernández, Nahia Landaluze, Bukayo Saka, Neymar, Lewandowski, Gheorghe Hagi, Vinicius, Ane Elexpuru eta Jayson Tatum) pertsona bakar batek adierazi dute, guztien %2,1ak, hain zuzen.

4. grafikoa.

Zein da zure kirolaririk gustukoena?




Ondoren, mutilen eta nesken erantzunak bereizi dira, bi generoen arteko diferentziak aztertzeko. Mutilei dagokienez, erantzun duten ikasleen %23,3ak adierazi du ez daukala kirolari faboritorik. Kirolari gustukoena duten ikasleen artean, Messi izan da gehien aipatu den kirolaria, %13,3arekin. Ondoren, Nico Williams sek jarraitu du %16,7arekin eta Iñaki Williams ekin %10arekin. Vinicius, Jayson Tatum, Gheorghe Hagi, Lewandowski, Bukayo saka eta Neymar, berdinduta azaldu dira %3,3arekin, pertsona batek aipatu baitu kirolari bakoitza. Ez da emakumezko kirolaririk azaldu mutilen erantzunetan.

Neskeei dagokienez, alde ia bikoitza dago gustukoena ez duten kirolarien artean, hau da, %52,9ak ez du gustukoena duen kirolaririk, hala ere, mutilen kasuan bezala, Messi izan da kirolaririk aipatuena (%17,6). Ondoren, mutilen kasuan bezala, Nico Williams izan da hurrengoa %11,8arekin. Nahia Landaluze, Ane Elexpuru eta Oihane Fernandez ikasle bakarrek erantzun dute, guztien %5,9ak. Ikusi daitekeen bezala, erantzun dutenen %17,7ak emakumezko kirolari bat du faborito bezala.


5. grafikoa.

Zein da zure kirolaririk gustukoena? (mutilak)



6. grafikoa.

Zein da zure kirolaririk gustukoena? (neskak)




3. galdera: Zure ustez, kirola mutilentzat bakarrik da ala neskentzat ere izan daiteke?

Ikasleen ia guztiek, hau da, ikasleen %98,5ak uste du kirola mutilentzat zein neskentzat dela eta gainontzeko %1,5ak ez dakiela adierazi du.

7. grafikoa.

Zure ustez, kirola mutilentzat bakarrik da ala nesKentzat ere izan daiteke?



3.1. galdera: Zergatik?

Galdera honen arrazoiketan ikasleen ia guztiek adierazi du neskek zein mutilek eskubide berdina dutela eta guztiek parte-hartzeko aukera dutela, kirolak generorik ez duelako. Hona hemen ikasleen idatzitako erantzunetako batzuk:

“Neskak eta mutiak berdinak garelako” (LH3, mutila)

“Kirolak ez duelako generorik” (LH5, neska)


“Ez da bidezkoa mutilek bakarrik kirola egitea” (LH6, neska)

4. galdera: Zure ustez, berdina gustatzen zaie neskei eta mutilei kirola?

Ikasleen ehuneko handi batek (%73,8), kirola mutilei zein neskei berdina gustatzen zaiela uste dute, %20ak hori uste ez duen bitartean. Bestalde, ikasleen %6,3ak ez dakitela adierazi dute.


8. grafikoa.

Zure ustez, berdina gustatzen zaie neskei eta mutilei kirola?




Mutilen eta nesken artean ez da diferentzia nabarmenik ikusi, izan ere, mutilen kasuan %75,2ak eta nesken kasuan %72,8an uste du kirola emakume zein gizonentzat dela. Hori uste ez dutenen artean, mutilen kasuan %20,2a izan da eta nesken artean %18,5a. Ez dakitela erantzun duten artean, nesken %8,6a izan da eta mutilen %4,6a.

9. grafikoa.
Zure ustez, berdin gustatzen zaie neskei eta mutilei kirola? (mutilak)



10. grafikoa.
Zure ustez, berdin gustatzen zaie neskei eta mutilei kirola? (neskak)




Bestalde, erantzunak mailaka aztertu dira, mailen artean egon daitezken desberdintasunak nabarmantzeko.


LH1. mailari dagokionez, %100ak erantzun du berdin gustatzen zaiela neskei eta mutilei kirola egitea. LH2. mailari dagokionez, gehienek, %80ak, alegia, erantzun du ados dagoela, %14,3ak ezezkoa eta %4,8ak ez dakiela erantzun duen bitartean. LH3. mailara pasatuz, baiezkoa eman duen jendeak behera egin du, %63,3ak esan baitu berdin gustatzen zaiela kirola neskei eta mutilei. Horrela, %25,5ak ezezkoa eman du eta %12,2ak esan du ez dakiela. LH4. mailari dagokionez, baiezkoa eman duen ehunekoak gora egin du, %85,5ak adierazi baitu ados dagoela, %14,5ak ezezkoa eman duen bitartean, ehuneko honek behera eginez. LH5ko ikasleen kasuan, baiezkoa eman duten ikasleen ehunekoak behera egin du, kasu honetan %75a izanik. Ezezkoa eman dutenek gora egin du berriro ere, hala ere, ez dakitenak %5a izan da oraingoan. Azkenik, LH6ko ikasleei dagokienez, baiezkoa eman duten ikasleek behera egin dute, kasu honetan, %61,2ak adierazi baitu baiezkoa, %28,6ak ezezkoa eman duen bitartean, LH5eko ikasleek baino ia bederatzi puntu gehiago. Ez dakitela adierazi duten ikasleak %10,2 izan dira, LH5eko ikasleen bikoitza.

Orokorrean erantzun gehienen tendentzia ez da oso aldakorra izan, hurrengo grafikoetan ikusi daitezkeen bezala.


11. grafikoa.
Zure ustez, berdin gustatzen zaie neskei eta mutilei kirola? (LH1)




12. grafikoa.
Zure ustez, berdin gustatzen zaie neskei eta mutilei kirola? (LH2)




13. grafikoa.
Zure ustez, berdin gustatzen zaie neskei eta mutilei kirola? (LH3)




14. grafikoa.
Zure ustez, berdin gustatzen zaie neskei eta mutilei kirola? (LH4)



15. grafikoa.
Zure ustez, berdin gustatzen zaie neskei eta mutilei kirola? (LH5)



16. grafikoa.
Zure ustez, berdin gustatzen zaie neskei eta mutilei kirola? (LH6)



4.1. galdera: Zergatik?

Baiezkoa eman duten ikasleen gehiengoak adierazi du neskak eta mutilak berdinak direla eta berdin gustatzen zaiela kirola. Ezezkoa eman duen jendeak adierazi du bakoitzak gustu desberdinak dituela eta horrek baldintzatzen duela gustu desberdinak izatea, neskak eta mutilak bereizi gabe.

Hala ere, ezezkoa eman duten ikasleen artean, LH3ko bi ikaslek (bat neska) eta LH6ko hiru mutilek, bestelako erantzun batzuk eman dituzte, neskei eta mutilei kirola berdin gustatzen ez zaiela adierazten. Hurrengo baieztapen hauek ikusi dira:

“Ez, neskek nahiago dute margozteia dantzatzea edo beste gauzak” (LH3, neska)

“Ez, nire ustez mutilei gehiago gustatzen zaie” (LH3, ez du sexua adierazi)

“Ez, mutilei gehiago, haien fisikoagatik” (LH6, mutila)

“Ez, neskak azkarrago nekatzen dira mutilak baino” (LH6, mutila)


“Ez, boleibolean neska gehiago daudelako mutilak baino” (LH6, neska)

5. galdera: Zure ustez, neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaie?

Ea neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaien galdetu zaienean, ia ikasleen erdiak, %48,3ak, ezezkoa adierazi du, %37,6ak baiezkoa adierazi duen bitartean. Gainontzekoek, batzuetan (%10,2) edota ez dakiela (%3,9) adierazi du.


16. grafikoa.

Zure ustez, neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaie?




Mutilen eta nesken artean zenbait desberdintasun agertu dira, oso nabarmenak izan ez arren. Mutilen kasuan, %55,9ak uste du neskei eta mutilei ez zaizkiela kirol berdinak gustatzen, nesken kasuan %43,2ak uste duen bitartean. Baietz uste dutenen artean, oso antzekoa izan da mutilen eta nesken tendentzia, mutilen %34,3ak eta nesken %39,5ak adierazi baitu. Bestalde, hori batzuetan gertatzen dela onartu duten ikasleen artean, mutilen %7,4a eta nesken %12,3a izan da. Ez dakitela adierazi dutenak gutxienengoak izan dira, mutilen %2,8ak eta nesken %4,9ak, alegia.

17. grafikoa
Zure ustez, neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaie?. (mutilak)



18. grafikoa.
Zure ustez, neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaie? (neskak)




Bestalde, lehenengo mailatik seigarren mailarte egon den tendentzia aztertu da. Hurrengo grafikoetan ikusten den bezala, orokorrean tendentzia aldakorra izan da, nahiko irregularra erantzun gehienetan. Baiezkoa eman dutenen artean, lehenengo hiru mailetan gora behera txiki batzuk ikusi dira, hala ere, %55-58 artean ikusi da tendentzia: %58,3a LH1ean, %55a LH2an eta %57,2a LH3an, hain zuzen. Hala eta guztiz ere, LH4tik LH6ra baiezkoak behera egin du, LH4an %47,6ak erantzun baitu neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaiela, LH5ean %30ak eta LH6an %33,1ak adierazi duen bitartean.


Ezezkoa adierazi dutenen artean, tendentzia nahiko aldakorra izan da, izan ere, lehenengo hiru mailetan beheranzko tendentzia bat ikusi da, LH1ean %41,7ak, LH2an %35ak eta LH3an %16,3ak adierazi dutelarik. Hala ere, LH4, LH5 eta LH6. mailetan neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaiela uste ez dutenak gehiago izan dira. LH4. mailan %47,6k, LH5. mailan %55ak eta LH6. mailan %48,1ek adierazi dute.

Lehen Hezkuntzako 2. mailatik aurrera "batzuetan" erantzun duten ikasleak agertu dira, tendentzia aldakor batekin. LH2. mailan %10ak eta LH3an %24,5ak adierazi du. LH4. mailara salto handi bat ikusi da, %47,6ak adierazi baitu. Lehen Hezkuntzako 5 eta 6. mailan berriro ere tendentziak behera egin du LH5ean %5arekin eta LH6an %10,4arekin. Ez dakitela erantzun dutenak gutxienengo bat izan da, LH1 eta LH2an %0a, LH3an %2a, LH4an %2,4a, LH5ean %10a eta LH6an %8,3a.


19. grafikoa.
Zure ustez, neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaie? (LH1)




20. grafikoa.
Zure ustez, neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaie? (LH2)




21. grafikoa.
Zure ustez, neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaie? (LH3)




22. grafikoa.
Zure ustez, neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaie? (LH4)



23. grafikoa.
Zure ustez, neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaie? (LH5)



24. grafikoa.
Zure ustez, neskei eta mutilei kirol berdinak gustatzen zaie? (LH6)




5.1. galdera: Zergatik?

Baiezkoa adierazi duten ikasleen gehiengoak arrazoi du neskei eta mutilei kirol berdinak gustuko izan ditzaketela neskek zein mutilek gustu berberak izan ditzaketelako. Horrela, ezezkoa eman dutenen gehiengoek ere adierazi dute neskei eta mutilei kirol berberak ez gustatzea gerta dakiekela gustu desberdinak izan ditzaketelako. "Batzuetan" adierazi dutenek ere onartu dute norberaren gustuen arabera dela batzutan kirol berdinak gustatzea edo ez gustatzea.

Halere, gustuen arabera ez den beste justifikazio batzuk ikusi dira, izan ere, 21 ikasleek, bestelako erantzun edota justifikazio batzuk eman dituzte. Hau da, ezezkoa eman dutenen ikasleen barruan, 21 ikasleen erantzuna gehiengoak esandakoaren desberdina izan da.


25. grafikoa.
Ezezkoen erantzuna



Justifikazio hauetan, lau erantzun mota ikusi dira; alde batetik, 21 ikasle horietatik 16k justifikatu dute mutilek kirol jakin batzuetara jolasten dutela beti edo gehienetan eta neskek beste batzuetara. 16 erantzun horietatik, 9 mutilak izan dira, erdia baino gehiago, neskek aldiz, 5 izan dira eta sexua adierazi ez dituztenak 2.

26. grafikoa.

Beste arrazoi bat eman dutenen sailkapena



Hauek izan dira arrazoiketa batzuk:

“Ez, mutilei futbola eta neskei gimnasia” (LH1, mutila)

“Ez, futbola adibidez orokorrean mutil gehiagori gustatzen zaie” (LH1, ez du sexua adierazi)

“Ez, mutilek kirol batzuk egiten dituzte eta neskek beste batzuk” (LH2, mutila)

“Ez, mutilei gehiago gustatzen zaie haien fisikoagatik” (LH6, mutila)

Bestelako erantzun batzuk ere jaso dira, hiru ikasleek, justifikatu dute neskek eta mutilak ez garela berdinak, eta horrek baldintzatzen duela kirol berdinak ez gustatzea. Hiru ikasleak LH3. mailakoak izan dira, hauetatik bi neskek izan dira eta batek ez du bere sexua adierazi.

Hauek izan dira baieztapenak:

“Ez, neskek eta mutilak desberdinak direlako” (LH3, neska)

“Ez, neskek eta mutilak ez garelako berdinak” (LH3, ez du sexua adierazi)

“Ez, desberdinak garelako neskek eta mutilak” (LH3, neska)

Azkenik, beste bi erantzun edota justifikazio desberdin ikusi dira, haien artean erlazioz izan ez dutenak. LH2ko mutil batek adierazi du neskei eta mutilei ez zaiela kirol berdinak gustatzen mutil batzuei lotsa ematen dielako neskek egiten dituzten gauzak egitea. Bestetik, beste justifikazio bat ikusi da, non LH3ko neska batek aipatu du neskei eta mutilei ez zaiela kirol berdinak gustatzen adibide bezala patioan futboleko daudenean mutilek erabakitzen dutelako guztia.

“Ez, mutil batzuei lotsa ematen die neskek egiten dituzten gauzak egitea. Adibidez, dantza” (LH1, mutila)


“Ez, adibidez patioan, futbolean gaudenean, beraiek bakarrik hartzen dituzte erabakiak” (LH3, neska)

6. galdera: Ezagutzen al duzu emakumezko kiolaririk?

Ikasleei emakumezko kiolaririk ezagutzen duten galdetzean %37,4k onartu dute ez dutela ezagutzen, %62,6ak ezagutzen duten bitartean.

27. grafikoa.


Ezagutzen al duzu emakumezko kiolaririk?



Erantzunak mutilen eta nesken artean bereizi denean, ikusi da mutilen %64,2ak eta nesken %58ak emakumezko kiolaririk ezagutzen dutela.


28. grafikoa.

Ezagutzen al duzu emakumezko kiolaririk? (mutilak)



29. grafikoa.


Ezagutzen al duzu emakumezko kiolaririk? (neskak)



Bestalde, mailaka ere aztertu da mailen arteko tendentzia ikusteko. Tendentziak gorabehera txiki batzuk izan dituen arren, orokorrean tendentzia nahiko konstantea izan da. Lehen Hezkuntzako 1. mailan, %66,7k ezagutzen dute emakumezko kiolariren bat, LH2. mailan %52,4ak eta LH3. mailan %53,1ak ezagutzen dutelarik. LH4. mailan zenbakiak gora egin dute, %70,9ak ezagutzen baitu emakumezko kiolariren bat. LH5 eta LH6. mailan ehuneko horrek behera egin duen arren, LH5. mailan %65ak ezagutzen du eta LH6. mailan %65,3ak.


30. grafikoa.

Ezagutzen al duzu emakumezko kiolaririk? (LH1)




31. grafikoa.

Ezagutzen al duzu emakumezko kiolaririk? (LH2)




32. grafikoa.


Ezagutzen al duzu emakumezko kiolaririk? (LH3)




33. grafikoa.
Ezagutzen al duzu emakumezko kirolaririk? (LH4)



34. grafikoa.
Ezagutzen al duzu emakumezko kirolaririk? (LH5)




35. grafikoa.
Ezagutzen al duzu emakumezko kirolaririk? (LH6)



7. galdera: Aurreko erantzuna baiezkoa izan bada, zein?

Baiezkoa esan duten ikasleei, ezagutzen duten emakumezko kirolaria izendatzea eskatu zaie. Gehien izendatu den kirolaria Alexia Putellas izan da, %42,6ak adierazi baitu. Ondoren ikasleen %18,6ak Athletic-eko futbolari desberdinak izendatu ditu. Ama (%5,4) edota haien entrenatzailea (%3,9) emakumezko kirolari bezala izendatu dituztenak egon dira. Anabelle Williams, Sam Kerr eta Serena Williams lau pertsonak adierazi dute, baiezkoa eman duten ikasleen %4,7ak. Bartzenolako neskaren bat izendatu dituzten hiru ikasle egon dira, baita Maria Quiñones izendatu dituzten beste hiru ere, %2,3a, hain zuzen. Azkenik, Lur Errekondo, Almudena Cid, Mireia Belmonte eta Peke Barea izenak ere agertu dira, bakoitza bi ikaslez aipatua, bakoitza baiezkoa emandakoen %1,6ak aipatua, alegia.

36. grafikoa.
Aurreko erantzuna baiezkoa izan bada, zein?




8. galdera: Uste duzu neskak kirol-entrenatzaile onak izan daitezkeela?

Ikasleei ea neskak kirol-entrenatzaile onak izan daitezkeen galdetu zaienean, ikasleen ia guztiek adierazi dute baiezkoa (%97,1). Ezezkoa %0,5ak adierazi du, ikasle batek, eta ez dakiela ikasleen %2,4ak, 5 ikasleek.

37. grafikoa.

Uste duzu neska kirol-entrenatzaile onak izan daitezkeela?



Baiezkoa eman duten ikasleek arrazoitu dute neska izateak ez duela baldintzatzen entrenatzaile ona edo txarra izatea, norberaren ezagutzen eta trebeziaren arabera dela. Hona hemen erantzun batzuk:

“Berdin duelako neska edo mutila izatea” (LH6, mutila)

“Neska izateak ez du esan nahi entrenatzaile txarra izatea” (LH6, mutila)

“Mutilak bezala, horretarako ikasten badute, onak izan daitezke” (LH6, mutila)

“Ondo ikasten badute, entrenatzaile onak izan daitezke” (LH6, mutila)

Ezezkoa eman duen ikasleak adierazi du neska ez direla kirol-entrenatzaile onak mutilak hobeak direlako. Hau izan da bere erantzuna:

“Ez, mutilak neska baino hobeak garelako” (LH6, mutila)

Azkenik, ez dakitela adierazi duten 5 ikasleak mutilak izan dira, eta ikasle bakar batek bakarrik arrazoitu du ez dakiela galdera erantzuten ez duelako inoiz neska entrenatzaile onak izan edota ikusi.

5.2. Galdetegiaren bigarren atala


Galdetegiaren bigarren atalean, ikasleek hamaika esaldi edo baieztapenekin ados dauden ala ez adierazi behar izan du 1etik 4ra markatuz (1 guztiz desados eta 4 guztiz ados denean).

1. esaldia: Orokorrean neska mutilak baino baldarragoak dira kirolean

Hasteko, lehenengo esaldiaren emaitza orokorrak labur-labur deskribatuz, ikusi daiteke inkestatuen gehienak, % 72,4a, ez daude batere ados baieztapenarekin, % 15 ez daude ados, % 6,3 ados daude eta beste % 6,3 erabat ados daude.

38. grafikoa.


Orokorrean neska mutilak baino baldarragoak dira kirolean



2. esaldia: Badira neskontzat egokiagoak diren kirolak eta mutilentzat egokiagoak diren beste batzuk

Bigarren esaldiarekin jarraituz, ikasleen erdia baino gehiago, %59,9a hain zuzen, guztiz desados dago baieztapenarekin, %40a ez dago ados, %11,1a ados dago eta %9,7a guztiz ados dago.


39. grafikoa.
Badira neskontzat egokiagoak diren kirolak eta mutilentzat egokiagoak diren beste batzuk



3. esaldia: Mutilek neskek baino interes handiagoa izaten dute kirolean, mutilak hobekak direlako

Hirugarren esaldiari dagokionez, inkestatuen ehuneko nahiko handi bat (%76,4) guztiz desados dago esaldiarekin, %14,5a ez dago ados, %4,8a ados dago eta %4,3a guztiz ados dago.


40. grafikoa
Mutilek neskek baino interes handiagoa izaten dute kirolean, mutilak hobekak direlako



4. esaldia: Mutilak neskek baino hobekak dira edozein kirolean, haien fisikoari esker

Laugarren esaldiarekin ikasleen zati handi bat, %85a, alegia, ez dago batere ados baieztapenarekin, %10a ez dago ados, soilik 1,5 ados dago eta %3,4 guztiz ados dago.


41. grafikoa.
Mutilak neskek baino hobekak dira edozein kirolean, haien fisikoari esker



5. esaldia: Orokorrean mutilek neskek baino gaitasun handiagoa dute kirola egiteko

Bosgarren esaldiarekin ikasleen gehiengoa guztiz desados dago (%71,5), %13,3a desados dago, %5,8a ados dago eta %4,3a bakarrik guztiz ados dago baieztapenarekin.


42. grafikoa.
Orokorrean mutilek neskek baino gaitasun handiagoa dute kirola egiteko



6. esaldia: Neskek mutilek baino arazo gehiago izaten dituzte kirola egin nahi badute

Baieztapen honekin, erantzunak antzekoagoak izan dira. %48,8a guztiz desados dagoen arren, %22,7a desados dago, %13,5a ados dago eta %14a guztiz ados dago.


43. grafikoa.
Neskek mutilek baino arazo gehiago izaten dituzte kirola egin nahi badute



7. esaldia: Orokorrean, mutilek neskek baino animo gehiago jasotzen dute kirola egiterakoan

Orokorrean ikasleen erantzunak nahiko irregularrak izan dira, izan ere, %36,2a guztiz desados dago, %16,9a ez dago ados, %26,1 ados dago eta %20,8a guztiz ados dago, hau da, erantzunak aurrekoak baino parekatuago egon dira.


44. grafikoa.
Orokorrean, mutilek neskek baino animo gehiago jasotzen dute kirola egiterakoan



8. esaldia: Kontaktu-kirolak (boxeoa, errugbia, karatea...) mutilen kirolak dira, eta ez da normala neskek egitea.

Baieztapen honetan, gehiengoa guztiz desados (%76,4a) edo desados egon da (%15). Gainontzekoen erantzunak ehuneko txiki bat izan dira, hau da, ados egotea edo guztiz ados egotea, %4,3a.


45. grafikoa.
Kontaktu-kirolak (boxeoa, errugbia, karatea...) mutilen kirolak dira, eta ez da normala neskek egitea.



9. esaldia: Mutilen neskei baino hobeto ematen zaie indarra eta oldarkotasuna (agresibitatea) duen edozein kirol

Esaldi honetan, berriro ere, ia ikasleen erdia (%48,3) guztiz desados dago esaldiarekin eta ikasleen %24,2 ez dago ados. Horrela, ikasleen %16,4a ados dago eta %10,1a guztiz ados.


46. grafikoa.
Mutilen neskei baino hobeto ematen zaie indarra eta oldarkotasuna



10. esaldia: Neskak mutilak bezain onak izan daitezke futbolean

Ikusten den bezala, ikasleen ehuneko oso txiki bat dago guztiz desados (%7,7) edo desados (%5,8). %7,7a ados dago eta ikasleen gehiengoa, %78,8a guztiz ados dago baieztapenarekin.


47. grafikoa.
Neskak mutilak bezain onak izan daitezke futbolean



11. esaldia: Orokorrean, neskak mutilak baino ahulagoak dira

Grafikoan ikusi daitekeen bezala, ikasleen gehiengoa guztiz desados (%70,1) edo desados (%19,8) dago esaldiarekin, %5,8a ados dagoen eta %4,3a guztiz ados dagoen bitartean.

48. grafikoa.
Orokorrean, neskak mutilak baino ahulagoak dira



6. Ondorioak

Inkestaren emaitzak aztertu ondoren, esan dezaket pozarren harritu nauela ikasle gehienek arrazoibide sexistarik edo matxistarik aurkeztu ez izanak. Hala ere, egia da oraindik lana dagoela egiteko gizartean dirauten genero-estereotipo batzuk hausteko.

Ikasleek praktikatzen dituzten kirolei dagokienez, deigarria iruditu zait mutilen erdiak baino gehiagok futbolean jokatzeko dutela; nesken artean, berriz, aniztasun handiagoa agertu da, saskibaloia baita gehien praktikatzen den kirola. Interesgarria da nabarmentzea kirol batzuk, hala nola boxeoa edo arrauna, mutilek bakarrik aipatu dituztela, eta beste kirol batzuk, hala nola dantza edo gimnastika erritmikoa, neskek bakarrik, eta horrek generoen arteko arrakala erakusten du kirol-jardunean.

Hala ere, aurretik aipatutako datuak alde batera utzita, Lehen Hezkuntzako ikasle guztien lagin txikia den arren eta adierazgarria ez den arren, pozgarria iruditzen zait neskek tradizioz mutilekin gehiago lotu izan diren kirol-praktiketara irekitzen ari direla ikustea pixkanaka, hala nola futbolera, eskaladara, etab.

Bestalde, ikusi da ikasleen kirolari gogokoena gizonetakoak direla mutilen kasuan, eta neskek, berriz, gizonetako eta emakumeetako kirolariak adierazi dituztela. Beraz, mutilek gizonetako kirolariak nahiago dituztela ikusi daiteke, neskek bi generoetako kirolariekiko jarrera orekatuagoa duten bitartean. Horrek, kirolari erreferenteen pertzepzioan genero-arrakala dagoela iradokitzen du, eta ondorioz, beharrezkoa bihurtzen da genero-berdintasuna sustatzen jarraitzea emakumeen zein gizonen kirol-trebetasunak baloratzeko orduan.

Berezi beharrezkoa da hurrengo galderetan, neska-mutilek kirolez berdinean gozatzen duten ala kirol berak gustatzen zaizkien aztertu denean, gehienek ez dutela justifikazio sexistarik edo matxistarik aurkeztu. Hala ere, kezkarria da ikasleen ehuneko txiki batek (% 10) beren kirol-gustuak genero-estereotipoetan oinarrituta justifikatzea, hala nola mutilek futbola eta neskek dantza nahiago dutela aipatzean edo kirol-gustuak generoaren arabera direla adieraztean. Bestalde, mutil batzuek lotsagatik ez dituztela kirol jakin batzuk egiten aipatu da. Argi dago estereotipo horiek ezabatzeke lanean jarraitu behar dela, eta kirol-arloan eta bizitzako beste esparru batzuetan aukera-berdintasuna sustatu behar dela.

Inkestatik ondorioztatzen den beste datu pozgarri bat da emakumeak entrenatzaile onak izan daitezkeela uste duten galdetean, ikasleen % 97,1ek baietz uste duela. Emaitza horrek adierazten du ikasle gehienek ez dutela genero-aurreiritzirik edo -estereotiporik

emakumeek entrenatzaile gisa duten gaitasuna ebaluatzerakoan, eta horrek belaunaldi berriak genero-berdintasunera eta aniztasunera irekiagoak daudela ikustarazten digu. Garrantzitsua da ildo horretan lanean jarraitzea, kirol-arloan eta gizartean, oro har, aukera-berdintasuna eta aniztasuna sustatzeko.

Interesgarria da azpimarratzea, lortutako emaitzen arabera, galdetutako ikasleen % 37,4k ez duela emakumezko kirolaririk ezagutzen. Gainera, bitxia da mutilak neskek baino emakume kirolari gehiago ezagutzen dituztela ikustea. Datu horrek, kirolaren eremuan emakumeen ikusgarritasuna sustatzeko eta alor horretan genero-estereotipoak ezabatzeko lan egiteko beharrari buruzko garrantzia adierazten digu. Izan ere, garrantzitsua da mutilek zein neskek erreferente femeninoak izatea kirolean, eta kirol maskulinorik edo femeninoorik soilik ez dagoela erakustea.

Inkestaren bigarren zatiari dagokionez, lortutako emaitzak oso kontsolagarriak dira, ikasle gehienek uko egin baitiete baieztapen estereotipatu edo sexistei. Emandako ia esaldi guztietan ikusi da ikasleen %50a behintzat guztiz desados dagoela esaldi horiekin. Oso pozgarria da ikustea ikasle gehienek ez dutela estereotipoetan sinesten eta kirolean genero-berdintasunera irekita daudela.

Kirol-arloan genero-berdintasunaren aldeko borrokan ahaleginak egin diren arren, oraindik ere neskek kirola egiteko dituzten oztopoak murrizteko joera dagoela ikustea kezkarria iruditu zait. Gainera, oraindik ere ikasle gutxi batzuek kirol oldarkorrek gizonentzat egokiagoak direla uste dute, eta horrek, estereotipo sexistak gizartean oraindik oso barneratuta daudela erakusten du. Azken batean, lan handia dago egiteko benetan berdintasunezkoa den kirol-giroa eraikitzeke, gizonak eta emakumeek kirol-jardueran egiten duten ahalegina eta dedikazioa berdin baloratuko dituen.

Laburbilduz, inkestaren emaitzek erakusten dute ikasleek pertzepzio positiboa dutela kirol-arloan genero-berdintasunarekiko, eta gizonak zein emakumeek antzeko kirol-trebetasunak eta -gaitasunak dituztela onartzen dutela. Hala ere, agerian uzten dute gizartean errotuta dauden genero-estereotipoak daudela oraindik, eta oztopo izan daitezkeela emakumeek kirolean parte hartzeke eta kirolari gisa onartzeko.

Beharrezkoa da lanean jarraitzea estereotipo horiek ezabatzeko eta kirolean genero guztientzako aukera-berdintasuna sustatzeko. Gainera, garrantzitsua da nabarmentzea emakume kirolarien ikusgarritasuna eta aintzatespena sustatzea beharrezkoa dela, neskek kirolean parte har dezaten sustatzeko eta komunikabideetan eta gizartean, oro har, haien presentzia areagotzeko.

Azken batean, emaitza horiek genero-estereotipoen aurkako borrokan oraindik lan handia egiteko dagoela erakusten dute. Hala ere, ikasle gehienek estereotipoak haien arazoibidean betiketzen ez dituztela ikustean itzaropena ematen didan zerbait da.

Hezitzailea izango naizen aldetik, errespetuzkoa eta inklusiboa den hezkuntza sustatzen jarraitzea funtsezkoa iruditzen zait, haur guztiek beren generoan oinarritutako mugarik gabe garatzeko aukera izan dezaten.

7. Hobekuntza proposamenak

Nire gradu-amaierako lanean, Lehen Hezkuntzako ikasleek kirolarekin lotutako genero-estereotipoak buruz dituzten pertzepzioak aztertu dira, baita ea ikasleek kirol-erreferente gisa emakumeak dituzten ikustea. Genero-berdintasuna eta kirol-eremuan rol ekitatiboak sustatzea funtsezko alderdiak dira gizarte inklusibo bat sustatzeko eta neskak eta emakumeak txikitatik ahalduntzeko.

Testuinguru horretan, Lehen Hezkuntzako eskoletan MullenLowe Group-ek (2016) Londreseko eskola bateko egindako esperimentuan oinarritu naiz nire proposamena egiteko, lanbideei eta kirol-rolari lotutako genero-estereotipoak aurre egiteko helburuarekin.

Nire proposamenaren ikuspegi kirol-esparruko genero-irudikapenean oinarrituko da, bi generoetarako dauden kirol-aukerei buruzko ikuspegi inklusiboagoa eta ekitatiboagoa sustatzeko helburuarekin.

Tailer interaktibo eta dinamikoak egingo dira Lehen Hezkuntzan, haurrek erreferente desberdinei buruz ikasteko aukera izateko. Horrela, hainbat alorretako profesionalak eskolara gonbidatuko dira beren esperientziei buruz hitz egiteko eta ikasleek kirol munduan emakumezko erreferenteen inguruan izan ditzaketen genero-estereotipoak aurre egiteko.

Erakunde desberdinetara bisitak ere antolatu daitezke, haurrek alor desberdinetako emakumezko kirolariekin elkarreragiteko eta haien lana gertutik ezagutzeko aukera izan dezaten. Gainera, jarduera artistiko desberdinen bidez, sormena sustatzeko aukera paregabea da, hala nola kirol-esparruan tradizioz gizonak edo emakumeak ikusten diren jarduera desberdinetako (entrenatzaileak, kirolari profesionalak edota prestatzaile fisikoak, besteak beste) pertsonaiak marraztuz edo antzeztuz, eta estereotipoak agertuz gero, hauei aurre eginez.

Dinamika eta ekintza desberdin horien esker, genero-estereotipoek ikasleek kirolekiko duten pertzepzioan nola eragiten duten ikusi eta aztertzeke aukera bat da.

Horrela, datuak biltzean, arazo honi buruzko kontzientzia handiagoa sortu daiteke ikasleen eta baita irakasleen artean ere.

Bestetik, genero-berdintasuna sustatzeko aukera bat ere da, izan ere, kirolen irudikapenetan dagoen genero-aldea agerian uztean, ikasleentzako aukera-berdintasun handiagoa sustatu nahi da.

Azkenik, sentsibilizaziorako eta jarrera-aldaketa bat emateko aukera ematen dizkigute aipatutako jarduera desberdinek. Izan ere, adibidez, gonbidatutako profesionalekin elkarreragin zuzena izateak tradizioz gizonekin lotutako kirolekin arrakasta izan duten emakumeen adibide zehatzak ikusteko aukera emango die ikasleei, baita alderantziz ere, eta horrek, jarrerak eta pertzepzioak aldatzen lagun dezake.

8. Bibliografia

Alonso, M. eta Furio, E. (2007). El papel de la mujer en la sociedad española. *Revista Economía, treball i territorio*, (19), 1-44.

Alonso Gómez, C. B., Rosa Camacho, N., eta Ruiz Herrero, F. (2021). Gender stereotypes in physical education. *ESHPA - Education, Sport, Health and Physical Activity*, 5(1), 27-40. <http://doi.org/10.5281/zenodo.4141365>

Alvariñas-Villaverde, M. eta Pazos-González, M. (2018). Estereotipos de género en Educación Física, una revisión centrada en el alumnado. *Revista electrónica de investigación educativa*, 20(4), 154-163. <https://doi.org/10.24320/redie.2018.20.4.1840>

Ángel, J. B., García, E. F. eta Zamorano, M. Á. S. (2007). Estereotipos de género, actividad física y escuela: La perspectiva del alumnado. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 11(2).

Angulo, M. (2007). *Las imágenes de las deportistas en los medios de comunicación*. Consejo Superior de Deportes.

ASPIC-Comunicación. (2013). Presencia y tratamiento del deporte femenino en la prensa generalista vasca y en periódicos de información deportiva. Vitoria-Gasteiz: Dirección de Juventud y Deportes.

- Bravo, M. eta Carazo, P. (2018). Estereotipos de género hacia la Actividad Física según sexo, grado escolar y región. *Revista internacional de ciencias sociales de la actividad física, el juego y el deporte*, 15 (7), 1-14.
- Fullana Puigserver, P. (2020). El feminismo oculto entre el músculo y la vida social: los inicios del deporte femenino en España. *Journal of Sport and Health Research*, 12(Supl 2), 145-158.
- Gallur, S., eta García, B. (2019). La presencia de la mujer en las informaciones de los cibermedios europeos de España, Italia, Gran Bretaña, Portugal y Francia. *Revista Latina de Comunicación Social*, 3(74), 403-417. doi: 10.4185/RLCS2019-1337
- Giuliano, T. A., Turner, K. L., Lundquist, J. C., eta Knight, J. L. (2007). Gender and the selection of public athletic role models. *Journal of Sport Behavior*, 30(2), 161- 198.
- Gómez-Colell, E., Medina-Bravo, P., eta Ramón, X. (2017). *La presencia invisible de la mujer deportista en la prensa deportiva española. Análisis de las portadas de «Marca», «As», «Mundo Deportivo» y «Sport» (2010-2015). Estudios sobre el Mensaje Periodístico*, 23(2), 793-809.
- González Sánchez, E. (2011). Beneficios de la Educación Física y el deporte en los escolares. *Rev. Digit. Innovación E Exp. Educ*, (39), 1-9.
- Hidalgo, T. eta Almonacid, A. (2014). Estereotipos de género en las clases de educación física. *Revista motricidad humana*, 15(2), 86-95.
- Ibáñez, E. (2001). Información sobre el deporte femenino: el gran olvido. *Apuntes. Educación Física y Deportes*, 65(3), 111-113.
- Illera Ariño, J. M. (2017). Los estereotipos de género que influyen en las clases de Educación Física. *Educación Física y Deportes, Revista Digital. Buenos Aires*, 22(227).
- Jiménez, R. (2015). El deporte femenino español en los Juegos Olímpicos. Consejo Superior de Deportes. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. https://transparencia.gob.es/transparencia/dam/jcr:7aa457c3-2ecc-4eff-aff7-286ae022fc65/Deporte_Femenino_JJOO.pdf
- Macías, M.V. (1999). *Estereotipos y deporte femenino. La influencia del estereotipo en la práctica deportiva de niñas y adolescentes*. [Doktorego tesia]. Universidad de Granada. Departamento de Psicología Social y Metodología de las Ciencias del

Comportamiento. Hemen eskuragarri: Digibug:
<https://digibug.ugr.es/bitstream/handle/10481/778/15755368.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

- Méndez-Giménez, A., Fernández-Río, J., eta González, C. (2008). El deportista de élite: influencias positivas y negativas en la población infantil y adolescente. *Tándem. Didáctica de la Educación Física*, (28), 6-16.
- Moya, I., Ros, C., Bastida, A., eta Menescardi, C. (2013). Estereotipos de sexo y raza en las imágenes de los libros de texto de educación física en primaria. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (23), 14- 18.
- Moya-Mata, I., eta Ros, C. (2018). ¿Cuáles son los referentes deportivos femeninos en los libros de texto de Educación Física? Educación y sociedad: Innovaciones en el siglo XXI. In *IV Congreso Virtual Internacional sobre Innovación Pedagógica y Praxis Educativa*. Libro de Actas. 20, 21 y 22 de marzo de 2018. AFOE: Sevilla.
<https://roderic.uv.es/bitstream/handle/10550/65548/2018.%20Comunicaci%c3%b3n%20Referentes%20deportivos%20femeninos.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- MullenLowe Group (2016ko martxoaren 15a). *Inspiring The Future - Redraw The Balance* [Bideoa]. <https://youtu.be/qv8VZVP5csA>
- Peña, M. C. V., eta Sánchez, O. N. (2020). Mujer, fútbol e inequidad. *Utopía y praxis latinoamericana*, 25(11), 333-348. <https://doi.org/10.5281/zenodo.4278378>
- Rabadán, S. R., eta Moya-Mata, I. (2020). Las deportistas olímpicas en los libros de texto de educación física: ¿ presencia o ausencia de referentes en nuestro alumnado?. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (38), 229-234.
- Sainz de Baranda Andújar, C. (2014). Las mujeres en la prensa deportiva: dos perfiles, *Cuadernos de Psicología del Deporte*, 14(1), 91-102.
- Stornes, T. (2001). "Sportspersonship behavior in elite sports: on the effects of personal and environmental factors on the display of sportspersonship among elite male handball players". *European Physical Education Review*, 7(3), 283-304.
<https://doi.org/10.1177/1356336X010073004>
- Teijeiro, D. R., Patiño, M. J. M., eta Padorno, C. M. (2005). Identidad y estereotipos de la mujer en el deporte: una aproximación a la evolución histórica. *Revista de investigación en educación*, 2, 109-126.

Yancey, A.K. (1998). "Building positive self-image in adolescent in foster care. The use of role models in an interactive group approach". *Adolescence*, 33(130), 253-267.

10. Eranskinak

1. Eranskina. Galdetegia

Genero-estereotipoak kirolean

Gradu amaierako lan honen helburua gaur egungo gizartean kirolarekin lotutako genero-estereotipoek presente jarraitzen duten aztertzea da. Zehazki, Lehen Hezkuntzako ikasleek kirolean dituzten genero-aurreiritziak eta -estereotipoak eta bi sexuen artean egon daitezkeen iritzi-desberdintasunak aztertuko dira.

** Indica que la pregunta es obligatoria*

1. Sexua *

Marca solo un óvalo.

- Neska
- Mutila
- Nahiago dut ez esan

2. Maila/Kurtsoa *

Marca solo un óvalo.

- LH1
- LH2
- LH3
- LH4
- LH5
- LH6

3. Kirola praktikatzen duzu? Zein? *

4. Zein da zure kirolaririk gustukoena? *

5. Zure ustez, kirola mutilentzat bakarrik da ala neskentzat ere izan daiteke? Zergatik? *

6. Zure ustez, berdina gustatzen zaie neskei eta mutili kirola? Zergatik? *

7. Zure ustez, neskei eta mutili kirol berdina gustatzen zaie? Zergatik? *

8. Ezagutzen al duzu emakumezko kirolaririk? *

Marca solo un óvalo.

Bai

Ez

9. Aurreko erantzuna baiezkoa izan bada, zein?

10. Uste duzu neskak kirol-entrenatzaile onak izan daitezkeela? Zergatik? *

Esan zure ustez hurrengo esaldi hauekin ados zauden ala ez 1etik- 4era
(1=Ez nago bat ere ez ados – 4= Guztiz ados nago)

11. Orokorrean neskak mutilak baino baldarragoak dira kirolean *

Marca solo un óvalo.

Ez nago bat ere ados

1

2

3

4

Guztiz ados nago

12. Badira neskeentzat egokiagoak diren kirolak eta mutilentzat egokiagoak diren *
beste batzuk

Marca solo un óvalo.

Ez nago bat ere ados

1

2

3

4

Gutziz ados nago

13. Mutilek neskek baino interes handiagoa izaten dute kirolean, mutilak hobeak *
direlako

Marca solo un óvalo.

Ez nago bat ere ados

1

2

3

4

Gutziz ados nago

14. Mutilak neskak baino hobeak dira edozein kiroletan, haien fisikoari esker *

Marca solo un óvalo.

Ez nago bat ere ados

1

2

3

4

Gutziz ados nago

15. Orokorrean mutilek neskek baino gaitasun handiagoa dute kirola egiteko *

Marca solo un óvalo.

Ez nago bat ere ados

1

2

3

4

Gutziz ados nago

16. Neskek mutilek baino arazo gehiago izaten dituzte kirola egin nahi badute *

Marca solo un óvalo.

Ez nago bat ere ados

1

2

3

4

Gutziz ados nago

17. Orokorrean, mutilek neskek baino animo gehiago jasotzen dute kirola egiterakoan *

Marca solo un óvalo.

Ez nago bat ere ados

1

2

3

4

Gutziz ados nago

18. Kontaktu-kirolak (boxeoa, errugbia, karatea...) mutilen kirolak dira, eta ez da normala neskek egitea *

Marca solo un óvalo.

Ez nago bat ere ados

1

2

3

4

Gutziz ados nago

19. Mutilei neskei baino hobeto ematen zaie indarra eta oldarkortasuna (agresibitatea) duen edozein kirol *

Marca solo un óvalo.

Ez nago bat ere ados

1

2

3

4

Gutziz ados nago

20. Neskak mutilak bezain onak izan daitezke futbolean *

Marca solo un óvalo.

Ez nago bat ere ez ados

1

2

3

4

Gutziz ados nago

21. Orokorrean, neskak mutilak baino ahulagoak dira *

Marca solo un óvalo.

Ez nago bat ere ados

1

2

3

4

Gutziz ados nago